

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Kobratzeko moduan jartzea hiri ondasun higiezin gainerako zergaren zergadunen errolda. 2021eko ekitaldia

Egin da hiri ondasun higiezin gainerako zergaren zergadunen errolda. Eta jendaurrean egon da hamabost egunez, 2021eko ekainaren 23ko ALHAOn (69. zk.) argitaratu zenetik aurrera, eta epe horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu. Zergadunen erroldak jendaurrean jartzeak likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitu Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikulua 3. apartatua. Beraz, errolda behin betiko onetsita geratu da.

2021eko urriaren 15a eta abenduaren 15a bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, hiri ondasun higiezin gainerako zergaren aurtengo ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epeak.

A) Borondatezko aldia: 2021eko urriaren 15etik abenduaren 15era.

B) Betearazte aldia: 2021eko abenduaren 16tik aurrera hasiera emango zaio betearaztealdiari, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta zerga helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz, eta ordainagiriak 2021eko abenduaren 1ean kobratuko dira, adierazitako kontuetan.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udaletxean eskatu edo sarrera egin ahal izango dute udalaren dirubilketa kontuetan, Banco Popular edo Kutxabank finantza entitateetan.

Aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinarazten diren zorrak izanik, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Alkatezari, ordainketa egiteko borondatezko aldi edo aldi hori amaitu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen.

Lapuebla de Labarca, 2021eko irailaren 21a

Alkatea

M^o TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ